| Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Estatistikarako Organo Berezia (EOB): araudia, eginkizunak eta helburuak | El Órgano Estadístico Específico -OEE- del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno: regulación, funciones y objetivos |
|---|---|
| **I. EOBren jarduera arautzea** | **I. Regulación de la actividad del OEE** |
| ***I.1*** ***Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 LEGEAK*** 3.2. artikuluan ezartzen duenez, Estatistika Antolakundeari dagozkio Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduerak. Aurrerago, 26.2.b artikuluan ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzaren Sailetako estatistika-organoak osatzen dute, besteak beste, Estatistika Antolakundea. | ***I.1*** ***La LEY 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi*** [1]en su artículo 3.2 determina que la actuación referente a la estadística de la Comunidad Autónoma se llevará a cabo a través de la Organización Estadística. Más adelante, en el artículo 26.2.b considera los órganos estadísticos de los Departamentos del Gobierno como uno de los elementos constitutivos de la Organización Estadística. |
| Hirugarren kapitulua oso-osorik dagokio Jaurlaritzaren Sailetako jarduera estatistikoari. Horren arabera, Sailei dagozkie Sailaren estatistika-plana egitea eta Eustatekin elkarlanean aritzea Euskal Plana eta Programak lantzeko. | El capítulo tercero se destina íntegramente a la función estadística de los Departamentos del Gobierno. Determina que corresponde a los Departamentos la elaboración del Plan Estadístico Departamental y la colaboración con Eustat en la elaboración del Plan Vasco y de los Programas. |
| Estatistika-organoa eratuta baldin badauka Sailak, organo horren bitartez burutuko dira honako eskumen hauek (33.1 eta 2 art.): | En el caso de que el Departamento tuviera constituido un Órgano Estadístico ejercerán a través de dicho Órgano las siguientes competencias (Art. 33.1 y 2): |

[1] Legislación estadística de la C. A. de Euskadi: http://www.eustat.eus/about/a_eustat2_c.html

| | |
|---|---|
| 33.1 | 33.1 |
| a) Sailaren estatistika-plana egitea. | a) Elaboración del Plan Estadístico Departamental. |
| b) Lankidetza Euskal-Estatistika Erakundea-Instituto Vasco de Estadística ereakundearekin Euskal Estatistika Plana eta Urteko estatistika-planak lantzeko. | b) Colaboración con el Euskal-Estatistika Erakundea-Instituto Vasco de Estadística en la elaboración del Plan Vasco de Estadística y los Programas Anuales de Estadística. |
| 33.2 | 33.2 |
| a) Urteko estatistika-planetan bilduriko estatistikak edo haien faseak lantzea.<br> | a) Elaboración de aquellas estadísticas o fases de ellas incluidas en los programas anuales.<br> |
| b) Estatistika propioak lantzea, hau da, estatistikaren euskal planean eta urteko estatistika programetan bildu gabeak. Kasu zehatz honetan, esan beharra dago organodun sailek baino ezingo dituztela egin estatistika propioak, planetatik eta programetatik kanpo. | b) Elaboración de estadísticas propias, no incluidas en el plan vasco de estadística ni en los programas estadísticos anuales. En este caso concreto hay que añadir que sólo podrán elaborar estadísticas propias diferentes a las de planes y programas los departamentos con órgano (Art. 8.1). |
| c) Beste erakundeekiko harremanak, eratorritako estatistika-eginkizunen ondorioz. | c) Relación con otros organismos en virtud de las funciones que le son atribuidas. |
| d) Eskumenekoak diren estatistikak egiteko informazioa lortzea. | d) Obtención de la información para la realización de las estadísticas de su competencia. |
| e) Estatistika emaitzak argitaratzea, Euskal Estatistika Erakundeari jakinarazi eta gero. | e) Publicación de los resultados de las estadísticas, previa comunicación de su contenido al Eustat. |
| f) Dagokion sektore-eremuko fitxategi-aurkibideak lantzen eta eguneratzen parte hartzea. | f) Participar en la elaboración y actualización de los Ficheros-Directorios de su ámbito sectorial. |
| g) Beren estatistika eskumenen esparruan, Dekretu-proiektuak prestatzea, Aginduak eta bestelako lege xedapenak onestea. | g) Preparación de los proyectos de Decreto y aprobación de Órdenes y otras disposiciones legales en el ámbito de sus competencias estadísticas. |

| | |
|---|---|
| Estatistika ofizialak badu alderdi garrantzitsu bat, beste edozein azterlan edo estatistika motatik bereizten duena: emaitzak publikoak dira eta Euskal Autonomia Erkidegoak horietaz balioarazteko izan dezaneko lege-alorreko harreman eta egoeretan nahitaez erabili beharrekoak. Berariazko estatistika-organoek argi uzten dute Sailaren administrazio-jarduketaren eta jarduketa estatistiko ofizialaren arteko aldea. | Un aspecto de especial relevancia de la estadística oficial que la diferencia de cualquier otro tipo de estadística o estudios reside en que los resultados son públicos y de aplicación obligatoria en las relaciones y situaciones jurídicas respecto a las que la C.A. de Euskadi tenga competencia para imponerlos (Art. 17.3). La existencia de los OOEE permite diferenciar claramente entre la actuación administrativa del Departamento y la actuación estadística oficial. |
| ***I.2*** ***Ekainaren 22ko 180/1993 DEKRETUAK arautzen ditu Jaurlaritzaren sailetako berariazko estatistika-organoak:*** sorrera, antolamendua eta jarduteko modua. | ***I.2*** ***El DECRETO 180/1993, de 22 de junio, se encarga de regular los órganos estadísticos específicos*** de los departamentos del Gobierno: creación, organización y funcionamiento. |
| EOBk pertsona bakarreko organoak dira (5.2 art.) eta estatistika legeriak ezarritako betebeharrak exijitxea horien titularrei dagokie. | Los OOEE se definen como órganos unipersonales (Art. 5.2) y la exigibilidad de los deberes derivados de la legislación estadística se localiza en el titular de los mismos. |
| 4/1986 Legean zehaztutako eskumenak dituzte eta horiek baliatuko dituzte sail horren estatistika-premiei dagokienez zein atxikita dituen erakundeei dagokienez (7.1 art.) | Tienen las competencias especificadas que se marcan en la Ley 4/1986 y las ejercerán no sólo con respecto a las necesidades estadísticas de su Departamento, sino también respecto a las de los entes institucionales que el mismo tenga adscritos (Art. 7.1). |
| Dekretuak BEO mota bi bereizten ditu: I. eta II. Lehenbiziko kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistikari dagokionean baino ez du jardungo. 4/1986 Legeak 20.6 artikuluan aipatutako informazioa eskuratzea ere eskatu ahal izango dute. II. motakoek, ordea, estatistika ondorioetarako baino ezingo dituzte eskatu datu administratiboak eta ez daukate esklusibotasunik bakarrik estatistika ofiziala egiteko. | El Decreto diferencia los OOEE de Clase I y II. En el primer caso se dedicarán exclusivamente a la actuación referente a la estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi. También podrán requerir el suministro de información a que se refiere el Artículo 20.6 de la Ley 4/1986. Los de Clase II sólo podrán requerir datos administrativos a efectos estadísticos y carecen de la exclusividad de realizar únicamente funciones de estadística oficial. |

| | |
|---|---|
| ***I.3 Justizia eta Herri Administrazio Sailaren EOBa martxan jartzea.***<br><br>**50/2010 DEKRETUAK, otsailaren 16koa,** Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa sortu eta haren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen du. | ***I.3 Puesta en marcha del OEE del Departamento de Justicia y Administración Pública.***<br><br>**El DECRETO 50/2010, de 16 de febrero,** crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Justicia y Administración Pública y establece su organización y funcionamiento. |
| ***I.4 Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailari atzikintzen zaio EOE.***<br><br>***71/2017 DEKRETUAK, apirilaren 11koa*, *Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa***, 6.2 artikuluan esaten du: 'Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitzen zaio Saileko Estatistika Organo Espezifikoa, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa sortzeko eta haren antolaketa eta egitekoak ezartzeko otsailaren 16ko 50/2010 Dekretuan xedatutakoaren arabera.' | ***I.4 Adscripción del OEE al Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.***<br><br>*El DECRETO 71/2017, de 11 de abril*, por el que se ***establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno*** indica en el Artículo 6.2: 'Se adscribe a la Dirección de Servicios el Órgano Estadístico Específico del Departamento, según establece el Decreto 50/2010, de 16 de febrero, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Justicia y Administración Pública y se establece su organización y funcionamiento.' |
| ***I.5 82/2005 DEKRETUA, apirilaren 12koa, estatistika eragiketen proiektu teknikoak onartu ahal izateko prozedura*** *arautzen duena,* eta Proiektu Teknikoen eta Estatistika Eragiketen Galdeketen Erregistroa sortzen duena.<br><br>Honako hau da Estatistikarako Organo Berezien jarduera nagusietako bat: proiektu teknikoak lantzea (galdeketak barne, beharrezkoa balitz) eta Eustaten zuzendaritzari aurkeztea, hain zuzen ere Euskal Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programetan sartuta dauden eragiketa guztiena. Euskal Estatistika Erakundeak onar ditzan aurkeztuko dira eta Erregistroan sartzeko. Proiektu teknikoak lantzea eta aurkeztea izango da estatistika-eragiketaren lehenengo fasea. | ***I.5 DECRETO 82/2005, de 12 de abril,*** por el que se regula el ***procedimiento para la aprobación de proyectos técnicos de operaciones estadísticas,*** y se crea el Registro de Proyectos Técnicos y Cuestionarios de Operaciones Estadísticas.<br><br>Una de las principales actividades en materia estadística de los OOEE consiste en la elaboración y presentación ante la dirección de Eustat de los Proyectos Técnicos, incluidos los cuestionarios si fueran precisos, de todas las operaciones inscritas en el Plan Vasco de Estadística y en los Programas Anuales (Art. 5) para su aprobación e inclusión en el citado Registro. La elaboración y presentación de los proyectos técnicos constituirá la primera fase de una operación estadística. |

| | |
|---|---|
| Estatistika-eragiketa baten garapenean onartutako proiektuak aldaketa garrantzitsuren bat izaten badu, aldaketa horren berri eman behar zaio Euskal Estatistika Erakundeko Zuzendaritza Nagusiari, aztertzeko eta baloratzeko. | Si en el desarrollo de una operación estadística el proyecto aprobado sufre alguna modificación sustancial, deberá ponerse la misma en conocimiento de la Dirección General del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística para su examen y valoración. |
| Aldian-aldian errepikatzen diren estatistika-eragiketetan, betiere proiektu teknikoa behar bezala inskribatuta baldin badago, onartzen den urteko estatistika-programa berri bakoitzarekin eta eragiketa hasi aurretik, organo edo ente erantzuleek Erregistroari jakinarazi beharko dizkiote inskribatutako proiektu teknikoa erabiliko den epe berriko gorabeherak, dagokion idatzoharra egin ahal izateko. | En las operaciones estadísticas cuya ejecución se repita periódicamente y el proyecto técnico esté debidamente inscrito, los órganos o entes responsables de las mismas, con cada nuevo programa estadístico anual que se apruebe y antes del comienzo de la operación, deberán comunicar al Registro la circunstancia de la utilización para el nuevo período del proyecto técnico inscrito, al efecto de que se proceda a realizar la anotación correspondiente. |
| **II. EOBren eginkizunak eta zereginak** | **II. Funciones y tareas del OEE** |
| Aipatutako lege esparrua oinarri hartuta, Estatistika Organoak honako eginkizunak izango ditu: | En base al marco legal citado, el Órgano Estadístico desarrollará las siguientes funciones. |
| **1.Orokorrean** | **1. De manera general** |
| a. Euskal Estatistika Antolakundean parte hartzearen ondoriozkoak.<br>b. EOBren bulegoko beharrizan informatikoak planifikatu eta antolatzea.<br>c. Informazio estatistikoa artxibatu, gorde eta zaindu. Estatistikako sekretupean egongo dira. | a. Las derivadas de su participación en la Organización Estadística Vasca.<br>b. Planificación y organización de las necesidades informáticas de la oficina del OEE.<br>c. Archivo, conservación y custodia de la información estadística que permanecerá bajo secreto estadístico. |
|  |  |

| | |
|---|---|
| d. Sailaren eta hari atxikitako erakundeen estatistika-jarduera planifikatu eta normalizatu. | d. Planificación y normalización de la actividad estadística del Departamento y entes adscritos. |
| e. Bestelako iturri estatistikoak eta administratiboak modu arrazoituan eskatu. | e. Solicitar de forma justificada otras fuentes estadísticas y administrativas. |
| f. Sailaren izaera pertsonaleko fitxategiak arautzen partehartu eta aholkatu. | f.. Participar y asesorar en la regulación de los ficheros de carácter personal del Departamento. |
| g. Sailak interesgarritzat jotzen dituen proiektuak egitea, batez ere sektoreko zerbitzuak, azterlanak eta azterketak. | g. Realización de los proyectos que se consideren de interés por parte del Departamento, especialmente servicios, estudios y análisis de tipo sectorial. |
| h. Saileko zerbitzuek egindako estatistika-eragiketa ez-ofizialetan aholkularitza estatistikoa eta metodologikoa eman, hala eskatuz gero. | h. Asesoramiento estadístico y metodológico en cualquier otra operación estadística no oficial realizada por los servicios del Departamento cuando sea requerido. |
| **i.** Eragiketen konfidentzial-tasunerako tratamenduak diseinatu eta betetzen direnaren ardura hartu.<br>Ikusi konfidentzialtasuna tratatzeari buruzko agiria<br> | i. Diseñar los tratamientos de confidencialidad en las operaciones y velar por que se cumplan.<br><br><br>Ver **documento sobre tratamiento de Confidencialidad.** |
| j. Zerbitzu ezberdinen beharren ondoriozko edozein motako aholkularitza estatistikoa, hala eskatuz gero. | j. Asesoramiento estadístico de cualquier tipo derivado de las necesidades de los distintos servicios cuando así sea requerido. |
| k. EOBrenak ez diren datuak babesteko aholkularitza. | k. Asesoramiento en materia de protección de datos ajenos al OEE. |

| 2. **Estatistika Planetan eta Urteko Programetan jasotako estatistikei dagokionean, hona hemen eginkizunak:** | 2. **Respecto de las estadísticas contenidas en los Planes Estadísticos y Programas Anuales será responsable de:** |
|---|---|
| 1. Planetan eta Programetan jasotako eragiketen Proiektu Teknikoak lantzea.<br>2. Eragiketak definitzea. Eragiketa berriak proposatzea eta ez-aktiboak edo estatistikoak ez direnak ezabatzea.<br>3. Eragiketen xedeak finkatzea.<br>4. Estatistika-eragiketen fase desberdinetako kalitate-estandarrak mugatzea.<br>5. Galdera-sortak, balegoz, diseinatzea. Nahitaezko eta borondatezko item-ak zehaztea.<br>6. Bidezkoak diren estatistikak burutzeko beharrezkoa den informazio hornidura eskatzea.<br>7. Informazioa biltzea, berdin diolarik jatorria (administratiboa edo inkesta bidezkoa, aurkibideak edo erroldak). EOBk ez badauka bitartekorik, fase hori azpikontratatu egingo du. Kostuen balioespena, bitartekoen egokitasuna zainduz.<br><br>8. Informazioa tratatzeko eta ustiatzeko planak lantzea eta burutzea.<br>9. Proiektu Teknikoaren gutxieneko zabalkundea zehaztea. Eustatera bidali ofizializatzeko. | 1. Elaboración de los Proyectos Técnicos de las operaciones contenidas en Planes y Programas.<br>2. Definición de las operaciones. Propuesta de operaciones nuevas y eliminación de otras inactivas o que no tienen carácter estadístico.<br>3. Determinación de los objetivos de la operación.<br>4. Delimitación de los estándares de calidad de las distintas fases de las operaciones estadísticas.<br>5. Diseño de los cuestionarios si los hubiera. Determinación de ítems obligatorios y voluntarios.<br>6. Requerir el suministro de información necesario para llevar a cabo las estadísticas pertinentes.<br>7. Proceder a la recogida de la información sea cual sea su origen (administrativo o de encuesta, directorios o censos). Cuando el OEE carezca de medios propios procederá a la subcontratación de la citada fase. Estimación de costes, velando por la adecuación de los recursos.<br><br>8. Elaboración y ejecución de los planes de tratamiento y explotación de la información.<br>9. Determinación de difusión mínima contenida en el Proyecto Técnico. Envío a Eustat para su oficialización. |

| | |
|---|---|
| 10. Estatistikako informazioa eta metainformazioa hedatzeko planak diseinatzea. Prentsa oharrak zabaltzea.<br>11. Sortutako informazioa artxibatu, gorde eta zaintzea. Informazio horretara iristeko arauak eta kontrolak ezartzea.<br>12. Informazio pertsonala duten euskarriak deuseztatzea garrantzizkoak ez badira. Guzti hori 4/1986 Legean ezarritakoa betez.<br>13. Estatistika eragiketa bakoitzaren antolaketa informatikoa.<br>14. Hedatzeko mikrodatuak dituzten fitxategiak definitzea.<br><br>15. Estatistika Sistemaren Komiteak 2017ko azaroaren 16an onartutako **Europako estatistiken jardunbide egokiak** eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak 73. saioan onartutako **Estatistika ofizialaren funtsezko printzipioak** aplikatzea. | 10. Diseño de planes de difusión de información y metainformación estadística. Difusión de notas de prensa.<br>11. Archivo, conservación y custodia de la información generada. Regulación y control del acceso a dicha información.<br>12. Destrucción de soportes con información personal cuando ya no sea relevante su utilización y siguiendo lo prescrito en la Ley 4/1986.<br>13. Organización informática de cada operación estadística.<br>14. Definición de ficheros de microdatos para difusión.<br><br>15. Aplicación del **código de buenas prácticas de las estadísticas europeas**, adoptado por el Comité del Sistema Estadístico Europeo a fecha 16 de noviembre de 2017 y los **Principios fundamentales de la estadística oficial** adoptados en la 73ª sesión plenaria de la Asamblea General de las Naciones Unidas. |

| | |
|---|---|
| Laburbilduta, planetan eta programetan jasotako eragiketei dagokionean, eragiketaren fase bakoitza planifikatu eta burutzeko erantzule nagusia izango da. Bestalde, planak hartuko dituen eragiketak definitzea eta eragiketa ezberdinen xedeak finkatzearen helburua, neurri handi baten, Sailaren zerbitzu ezberdinen estatistikako beharrizanak asetzea izango da. Horregatik da ezinbestekoa Estatistikako Organo Berezia eta zerbitzu horiek lankidetzan aritzea.<br><br>Estatistika amaitu ondoren eta behin datuak eskura izanik, Organoak Saileko erabiltzaileen informazio-eskeei erantzungo die, haien helburuetarako gutxieneko zabalkundearen ondoriozkoa baino zehatzagoa dena. Beharrizan horiek asetzeko irizpide teknikoak erabiliko dira eta estatistika sekretua babestuko da. Bidezkoak badira, Jaurlaritzaren eta gizarte eragileen eskabideak ere beteko dira.<br><br>**III.EOBren helburu generikoak**<br><br>A. Sailean garatutako estatistika ofiziala gainontzeko estatistika ofizialaren kalitate maila berean kokatu gutxienez, prozesuei zein metodologiari dagokionean. Erreferentziatzat hartuko da Espainiako ministerio baliokideetan Eustaten parekoa den Eurostatek garatutakoa.<br><br>B. Informazio estatistikoa artxibatu, gorde eta mantentzeko ingurune seguru eta kontrolatuak definitu eta eraikitzea. Aldi berean, konfidentzialtasuna eta estatistika-sekreturako tratamenduak bermatu egingo dira, artxiboan zein gainontzeko estatistika eragiketaren fase guztietan. | En resumen, y con relación a las operaciones contenidas en los planes y programas, será el responsable último de la planificación y ejecución de todas las fases de la operación. Lógicamente, la definición de las operaciones que han de ser incluidas en el plan así como la determinación de los objetivos de las distintas operaciones, tienen como finalidad, en gran medida, satisfacer las necesidades estadísticas de los distintos servicios del Departamento. Por ello resulta imprescindible para el OEE la colaboración de los citados servicios.<br><br>Una vez la estadística esté concluida y se disponga de los datos, el Órgano atenderá peticiones de información de los usuarios del Departamento que, para sus propios fines, tengan un carácter más exhaustivo que el derivado de la difusión mínima. La satisfacción de estas necesidades se llevará a cabo en base a criterios técnicos y salvaguardando el secreto estadístico. También se cumplimentarán, en la medida de su pertinencia, peticiones del propio gobierno y de los agentes sociales.<br><br>**III.Objetivos genéricos del OEE**<br><br>A. Situar la estadística oficial desarrollada en el Departamento como mínimo al mismo nivel de calidad, tanto en procesos como en metodología, que el resto de la estadística oficial, teniendo como referencia especial a la desarrollada en los Ministerios españoles equivalentes, a la del Eustat y Eurostat.<br><br>B. Definir y construir entornos seguros y controlados de archivo, custodia y mantenimiento de información estadística. A la vez, se trata de garantizar los tratamientos de confidencialidad y secreto estadístico, no sólo en el archivo, sino también en el resto de las fases de las operaciones estadísticas. |

| | |
|---|---|
| C. Behar beste bitarteko material eta giza baliabidez hornitu Estatistikako Organo Berezia. Estatistikako Organo Bereziko kideentzako prestakuntza bidezkoa aztertuko da, interesatuta dauden Saileko gainontzeko langileekiko. | C. Dotar al OEE de recursos materiales y humanos suficientes. Así mismo, se estudiarán las medidas de formación pertinentes a los propios miembros del OEE y del resto del personal interesado del Departamento. |
| D. Planifikazio-tresnetan eta hedapenerako egutegi publikoetan aurrera egitea, Sailaren estatistika ofizialaren gardentasuna eta independentzia areagotzeko. | D. Avanzar en herramientas de planificación y calendarios de difusión públicos, con el fin de aumentar la transparencia e independencia de la estadística oficial del Departamento. |
|  |  |
| E. Sexu-berdintasunerako printzipioa eta Sailak konpromisoa hartzen duen beste haiek ere aplikatuko dituela bermatu, ekoizpenaren zein estatistika hedapenaren alorrean. | E. Velar por la aplicación de los principios de igualdad de sexo y todos aquellos que asuma el Departamento, en el ámbito de la producción y difusión estadística. |